

zu ni zeranean mintzatuko gara, erantzun bakarra. Baina, usteak uste, bibliografietan ere hain jaramon guti egin zaion Féliz de la Fuente Marquínez de Beltrán-en *Universitas*-i inork uka ezin bere universaltasuna, izenburuak dionez eta edukinaren poliglotasunagatik.

ETXERAKO DIRUA?—Donostiago Aurrezki Kutxak bi-deetan «Etxerako dirua» eskaintzazko iragarkiak jarri ditu aurten. Izan ere, krisi luze honen ondorean holako laguntza beharrezkoa zen.

Aurrezki Kutxa horren zenbait sukurtsaletan txanda hartzean izan dira istiluak eta atsekabeak. Etxerako dirua jasotzeko asmoan joan eta eman ez. Zelako desiluzio. Etxerako ez, etxearentzat eskaintzen omen da, eta ez errediturik gabe. Hor ba; ustea, erdi ustela.

TRADUCCION SIMULTANEA.—Roiz Olabeguenagakoaren ustez, «traducción simultánea»-ren erabileran, euskaldunok ez omen diogu katalanei zorrik. Haien teknikak hainakoak edo hobeak omen dira hemengoak.

Justo Egiategi, harri eta zuhur: Hala diotenez, egia izanen da. Diferentzia bakarra, hango politikoez itzulpen simultaneoak erabiltzen dute katalanetik gaztelerara eta hemengoek aldiz gazteleratik euskarara.

Nork esan du euskarari aukerarik ez zaiola ematen?

ASTERIX KOMIKIAK ETA G. ARESTI.—Aurtengo apirilaren 12an, adiskide Angel M. Ortiz Alfau-k «Miscelanea vasca» zeritzan artikulua bat argitaratu zuen Bilboko *El Correo Español*-en, beste zenbait gauzaren artean Gabriel Arestik